

**ONA TXARTELAREN AURKEZPENA**
Osasun Nortasun Agiria**Herri-erabilera Anitzeko Osasun Txartel Elektronikoa Berria****2007ko azaroak 14**

Lehendakariordea, agintariak, jaun-andreok, egunon dizuela:

OTI txartelak, Osakidetzako Osasun Txartel Indibidualak, dagoeneko 20 urte bete ditu. Aitzindaria bere garaian, Osakidetzaren erabiltzaile eta Osasun Saileko aseguru gisa identifikatu gaituen dokumentua izan da eta, zalantza gabe, eginkizun garrantzitsua bete du transakzio sanitarioak antolatzen eta modernizatzen eta, hori bezain garrantzitsua dena, denok eta gutako bakoitza sentiarazi gaitu euskal osasun sistema publikoaren atal edo partaide.

Baina, logikoa denez, 20 urte hauetan gauza asko aldatu dira eta aldaketa horretan eragin berezia izan duen elementuetako bat Informazio eta Komunikazioko Teknologien (IKT) garapena izan da, izan ere, gero eta erosotasun handiagoaz eta erabilpen ohikoago eta arruntagoaz, gaur egun hainbat eta hainbat zerbitzu baliatzen baititugu oraindik urte asko ez direla ametsetan ere bururatzen ez zitzaizkigunak.

Eta jakina, OTI txartelak marko berri horri erantzun beharra zeukan. Zentzu horretan, oroituko zarete nola joan den otsailean –Eusko Jaurlaritza buru zela antolaturiko lankidetzaren instituzional baten emaitza gisa– jarri genuen martxan Basaurin **Herri-erabilera Anitzeko Osasun Txartel Elektronikoa**. Aipatu txartelarekin artikulatu nahi ziren, etorkizun hurbilean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria guztiaren harreman elektronikoak, ez bakarrik Administrazio sanitarioarekikoak, baizik bai eta beste Administrazio

Publiko batzuekikoak ere, Erkidego mailakoak ez ezik, Estatu mailakoak.

Beraz, erronka eta erantzukizun berriei aurre egin behar zitzairen eta, sanitatearen arlora mugatuko ez zen tresna bat eskaini behar zitzairen herritarrei administrazioarekiko hainbat gestiotarako baliagarria izango zena, eta administrazioetik kanpokoetarako ere bai.

Lorturiko emaitzek itxaropen baikorrenak ere gainditu zituzten eta Proiektua era progresiboan Euskadiko herri guztietara hedatzea erabaki genuen. Hala, Basauriren ondoren, Azpeitia, Azkoitia, Beasain, Legazpi eta Getarian ezarri genuen txartel berria.

Eta pilotaje hauetan lorturiko esperientziarekin, txartel honen irudia erabat aldatu behar dela erabaki dugu. Argi utzi behar da populazio guztiaren aldetik oso ezaguna eta erabilia zen tresna bat (OTI txartela), oraindik asko ez dela arte prestazio sanitarioak lortzeko bakarrik balio zuena, erabat aldatu dugula, administrazioetako edozein eremu eta zerbitzutarako balioko duen beste txartel bat garatzeko.

Horregatik jaio da ONA, gaur aurkezten dizuegun OTIaren irudi berria.

Lehenengo eta behin, argi utzi nahi dut ONA zerbait gehiago dela OTIaren irudi eta izen aldaketaren emaitza baino. Lehen mailako tresna telematiko gisa dago asmatua eta aurrerakuntza kualitatibo eta funtsezko bat suposatzen du orain eskaintzen dituen zerbitzuen prestazioari dagokionez. Zentzu horretan, batez ere bi berrikuntza azpimarratu nahi nituzke:

- Lehen, osasun txartela azkar eta eraginkortasunez egokitzen dela Informazio eta Komunikazio Teknikek ezartzen dituzten aldaketetara.
- Eta, bigarrena, osasun txartelak bere eragin esparrua gainditzen duela eta izaera unibertsaleko plataforma bihurtzen dela, edozein herritar eta edozein administrazio elkarren artean harremanetan jartzea ahalbidetzeko. Baina hori bai, BERE JATORRIZKO IZAERA GALDU GABE, hau da euskal

osasun publikoaren aurrean identifikatuko gaituen txartela izaten jarraituko duela.

ALDAKETAK

1) Txartel berriari lehen begiratu bat eman orduko ikusten da, bai bere egikera eta bai ezaugarri nagusiak bertikalki antolatuak daudela, eta ez horizontalki, diru zorroan eraman ohi ditugun txartel gehienak bezala. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritza izan da orain arteko dinamika hori alde batera utzi duen lehendabiziko Administrazio Publikoa.

Formatu aldaketa hau bi arrazoiri zor zaie:

- sinadura elektronikoa aurreratua dagoen txip enkriptatua antolaturik dagoen erari;

- eta txartela edozein irakurgailutan sartzeko era naturalari, dela PC batean, dela teklatu batean edo ordenadore eramangarri batean, hau da, datu garrantzitsuenak (datu identifikagarriak eta sanitarioak) betiere begi bistan geratzen diren eran; sistema horizontalean datuen zati bat irakurgailuan ezkutaturik geratzen baitzen.

2) Gainera, Txartelak Osakidetza markaren irudia dauka, bereiziki, eta Eusko Jaurlaritzarena, orokorki, horrela, grafikoki adierazteko erabilgarritasun asko dituen erreminta bat dela, askotariko zerbitzuertarako sarbidea ematen duena.

3) Grafia eta diseinua originalak dira, euskal arte tradizionalen inspiratuak, eta ONA txartelerako hautatu den kolorea ere ez da izan kasualitatez, izan ere, adituen arabera, urreak berez konfiantza, balioa eta sendotasuna iradokitzen baititu.

Laburbilduz, Txartelak dauzkan formatuaren, ikurren, diseinuaren eta kolorearen bitartez, eraginkortasuna, erosotasuna, konfiantza eta sendotasuna iradoki nahi izan ditugu eta erabiltzaileen atxikimendu sentimentala geureganatzen ahalegindu gara.

ELEMENTU TEKNIKOAK

Bestalde, ONA txartelak azken belaunaldiko elementu teknologikoak barne hartzen ditu, hala nola, sinadura elektronikoa aurreratu eta onartua, hurbiltasun antena, barra kodea edo banda magnetikoa.

Elementu horiei guztiei esker, erabateko segurtasun eta berme juridikoz egin daitezke bai gestio sanitarioak eta bai izapide digitalak ere gainerako Administrazioekin (Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza edo Administrazio estatala) edota hirugarren pribatuekin.

HEDATZEA

Gutxi barru esan daiteke, 2009 urtean, ONA txartela populazioaren erdia baino gehiagoren eskuetan egongo da eta, bost urteko epe barruan, euskal osasun publikoaren erabiltzaile diren 16 urtetik gorako ia pertsona guzien eskuetan egongo da.

Horretarako, ONA hedatuz joango da, bereziki izaera geografikoko zabaltze erritmo etengabe baten arabera. Hau da, herriz herri joango da, eta aldi oro, hedapenaren xede den herriko populazioari informazioa emango zaio non eta nola lortu behar duen ONA txartela.

Etxe barruan, ahalegin handi bat egiten ari gara hedapena gauzatzen ari den herri bakoitzeko osasun zentroetako sistema informatikoak prestatzen eta egokitzen, txartel berriaren eskabide eta igorpenari erantzuteko. 2009an, eskabidea Euskadiko edozein osasun zentrotan bideratu ahal izango da.

Gainera, Osakidetza pertsonal guztiari informazioa eman zaio Herri-erabilera Anitzeko Osasun Txartel Elektronikoari buruz, hasiera batean eta bere erabilpenean trebatzen garen bitartean, txartel berriarekin datorren edonori zerbitzu sanitarioaren prestazioa bermatzeko, txartel hori edonon eskuratua duela ere.

Bestalde, aipatu hedapena amaitzen ez den bitartean bai OTIa eta bai Herri-erabilera Anitzeko Osasun Txartel Elektronikoa biak egongo dira indarraldian eta erabateko baliotasuna edukiko dute.

Azkenik, azpimarratu nahi nizueke txartel berriak, gainera, gestioa hobetzea ahalbidetuko digula, eta ondorioz, Osakidetza ematen duen zerbitzua ere bai, izan ere, sanitatearen eremuan, gero eta herritar gehiagok tresna hau edukitzeak bizkortu egingo du zerbitzuen prestazioa, teknologia berriei esker, eta, horrez gain hobetu egingo ditu gure gestio sistemak eta erabiltzaileentzako zerbitzuak osasun zentroetan eta batez ere ospitale zentro nagusietan, horietan beste inon baino handiagoa baita zerbitzuen aniztasuna eta pertsonen bolumena.

Izan dadila, beraz, ongi etorria ONA txartel berria.

GABRIEL M^a INCLÁN IRIBAR
OSASUN SAILBURUA